

ZAZPIGARREN ORDENANTZA FISKALA

HIRIGINTZAKO DOKUMENTAZIO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO ZERGA

I. ARRAZOIA ETA IZAERA

1. Artikulua.- Ekainaren 30eko 5/89 Foru Arauak, horrek arautzen ditu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek Hirigintzako Zerbitzuen tasa ezartzen du, tasa hori Ordenantza Fiskal honek arautuko du, eta horko arauak lehen aipatutako Foru Arauaren 20. artikuluan aurrikusitakoa jasotzen dute.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. Artikulua.- Tasaren egitate zergagarria honako hau izango da, hirigintzako zerbitzuak ematera zuzendutako udal iharduera, bai teknikoak bai administratiboak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. Artikulua.- Zergadunak izango diren subjektu pasiboak izango dira, bai pertsona fisikoak edo juridikoak bai Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikulua aipatzen dituen entitateak.

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 40 eta 41 artikuluetan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna izango dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoen, bai porrotetako, lehiaketetako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitzatzaileek, Bizkaia Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan adierazitako kasuetan eta eskumenetan.

IV. ZERGAREN KUOTA

5. Artikulua.- Zergaren tasa, hurrengo Tarifaren aplikaziotik ondorioztatzen dena izango da:

KONTZEPTUA	TARIFA
1.- Hirigintza partzelazioaren eta / edo bereizketaren lizentziak bideratzea	142,00
2.- Obra baimenak eta egiteko aginduak tramitatzea:	
2.1.- EMA < 6.010,12 duten obrak	EXENTAS
2.2.- EMA >6.010,12 eta < 30.050,61 duten obrak	1,05%
2,3.- EMA >30.050,61 eta < 60.101,21 duten obrak	1,15%
2,4.- EMA > 60.101,21 eta < 90.151,82 duten obrak	1,26%
2.5.- EMA >90.151,82 eta < 120.202,42 duten obrak	1,47%
2,6.- EMA > 120.202,42 duten obrak	1,67%
2.7.- Emandako baimenaren luzamendua eskatzea, horko beste baldintzarik aldatu gabe	105,00
3.- Lehenengoz erabiltzeko lizentzia bideratzea	188,00
3.1.- Familia bakarreko edo biko etxebizitzak lehenengoz erabiltzeko edo etxebizitza 1 edo 2rako erabilera aldatzeko lizentzia	209,00
3.2.- Taldeko etxebizitzak eta / edo industria edo merkataritza pabiloiak lehenengoz erabiltzeko eta / edo etxebizitza 1 edo 2rako erabilera aldatzeko lizentzia	314,00

4.- Publizitate kartelak instalatzeko Baimenak tramitatzea:	-
4.1.- 12 m2 arte.	323,00
4.2.- 12 m2 baino gehiago, 24 m2 arte.	645,00
4.3.- 24 m2 baino gehiago, aurreko kopuruaz gain (4.2) m2 edo zatiki bakoitzeko	15,00
4.4.- Publizitate kartelak instalatzeko errekerimenduak betetzeko urteko supervisioia. m2 edo zatiki bakoitzeko	26,00
5.- Eraikuntzako Elementuaren erabilera aldatzeko baimena	73,00
6.-Berriro partzelatzeko Proiektuaren tramitazioa.	3.206,00
7.- Finkak Normalizatzeko proiektuaren tramitazioa	1.069,00
8.- Berriro partzelatzeko proiektuaren egiaztapena, Finken normalizazioa (orrialdeko)	64,00
9.- Hiriko ez diren partzelazioak. Beharrezko ez direla deklaratzeko	83,00
10.- Xehetasunezko Estudioak tramitatzea	3.206,00
11.- Hirugarren onuradunaren eskariz egindako desjabetzea (adibidez: Hitzarmen Batzordea edo igogailuak instalatzeko Jabekideen Erkidegoa...	1.924,00
12.- Obra Nagusiaren Zuinketari edo igogailua jartzeari dagokion egiaztapen-akta, beste aldeak eskatuta eraikitako unitate bakoitzeko edo igogailu bakoitzeko	214,00
13.- Eraikinen ikuskapena, beste aldeak eskatuta	1.069,00
14.- Hondamen Aitortzari buruzko txostena, beste aldeak eskatua	3.206,00
15.- Obrak bere ordezkari egitea: Egiteko Agindua beteko ez litzatekeen kasuan, eta administrazioak betearazte subsidiarioagatik hori egingo balu, % 100eko Gaiakargua aplikatuko zaio aurrekontua likidatzean egokituko litzaiokeen kuoten gainean, 5. artikuluko 2. Kuotaren arabera.	

V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua.- Tasaren ordainarazpenean ez da inolako salbuespenik ez hobaririk onartuko.

VI. SORTZAPENA

7. Artikulua.- Egitate zergagarria osatzen duen udal iharduerari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa. Ondorio horietarako, jarduera horri hasiera eman zaiola joko da hirigintzako zerbitzuen eskaria aurkezten den datan, baldin eta subjektu pasiboak esanbidez eskatuko balu hori.

2.- Zergak ordaintzeko betebeharra sortu ostean, ez du harengan eraginik izango eskatzaileak uko egiten badio edo onartzen ez badu behin lizentzia eman ostean.

VII. AITORPENA

8. Artikulua.- Hirigintzako zerbitzuren bat nahi luketen pertsona interesatuek, aurretiaz, dagokion eskaria aurkeztuko dute hirigintzako zerbitzuaren izaera zehazki adieraziz.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

9. Artikulua.- Tasa auto-kitapen erregimenean galdatu ahal izango da.

IX. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. Artikulua.- Zergari buruzko arauhauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaia Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 186. artikuluan eta ondorengoetan xedatua dagoena hartuko da kontutan.

X.- XEDAPEN GEHIGARRIA
ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorriz, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(2008ko irailaren 25a, 2009ko irailaren 24a, 2011eko azaroaren 11ea, 2012eko azaroaren 19ea Udalbatzak aldatua, 2016ko azaroaren 24ea, 2017ko urriaren 26ea aldatua, 2018ko urriaren 25ea aldatua, 2019ko urriaren 30ea eta 2022ko urriaren 27a)